

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 429/2019 Erabakia, uztailaren 8koa. Onestea Diputatu Nagusiaren Saileko aholkularitza bereziko karguetako behin-behineko langileen kargu uzteak

Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 21eko 378/2015, abuztuaren 4ko 450/2015, irailaren 8ko 490/2015, abenduaren 23ko 714/2015 eta otsailaren 23ko 65/2016 erabakien bidez, Silvia Nuñez Castro, José Luis Jiménez Barragán, losu Muro Visa, Raquel Ugarriza Mendibil eta Concepción Quintana Aguirre jaun-andreak izendatu ziren, aholkularitza teknikoko behin-behineko lanak egiteko 1122.001, 1122.002, 1122.003, 1122.005 eta 1122.006 lanpostuetan, hurrenez hurren.

Nahiz eta behin-behineko langileek beren karguak modu automatikoan uzteko data den konfiantza edo aholkularitza ematen dioten karguak bere postua uztearena, Foru Kargu Publikoen Jarduna arautzen duen ekainaren 11ko 10/2018 Foru Arauaren laugarren xedapen gehigarriaren 2. apartatuan jasorikoarekin bat etorritik, foru administrazioari dagokio esanbidezko ebazpena ematea interesdunarentzat.

Horregatik, diputatu nagusiak proposatuta, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 8. artikulua esleitutako eskumenak baliatuz, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Aholkularitza bereziko eginkizunak dituzten behin-behineko langile hauek beren karguak uztea:

1. Silvia Nuñez Castro andrea, behin-behineko aholkulari tekniko kargua; kodea: 1122.001.
2. José Luis Jiménez Barragán jauna, behin-behineko aholkulari tekniko kargua; kodea: 1122.002.
3. losu Muro Visa jauna, behin-behineko aholkulari tekniko kargua; kodea: 1122.003.
4. Raquel Ugarriza Mendibil andrea, behin-behineko aholkulari tekniko kargua; kodea: 1122.005.
5. Concepción Quintana Aguirre, behin-behineko aholkulari tekniko kargua; kodea: 1122.006.

Bigarrena. Kargu uzte horiek 2019ko uztailaren 5etik aurrera izango dute eragina, diputatu nagusiak bere kargua uztearen ondorioz, ALHAOn noiz argitaratzen den kontuan hartu gabe.

Hirugarrena. Ebazpen horren kopia zigilatua helaraziko zaie interesdunei.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailaren 8a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE